

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila**

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren 4047/2026 FORU AGINDUA, ekainaren 16koa, zeinaren bidez Zigilu Elektronikoa eta Egiatzapen-Kode Segurua (EKS) ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundian aurretiazko zerbitzuen ziurtagiria emateko administrazio-jarduera automatizaturako sinadura elektronikoko sistema gisa.

Administrazio Publikoan Aurretiazko Zerbitzuak aitortzeari buruzko 1978ko abenduaren 26ko 70/1978 Legeak hau xedatzen du 1. artikulua 1. eta 2. apartuetan:

Bat. Estatuko Administrazioa, tokiko administrazioa, erakundeetako, Justizia Administrazioa, lanaren jurisdikzioa eta Gizarte Segurantzako karrerako funtzionarioei honakoak aitortzen zaizkie: aipatutako Administrazioetan egindako zerbitzuak, baldin eta dagokion kidego, eskala edo postuak eratu aurretik egindakoak edo horietan hasi aurretik egindakoak badira; eta baita Administrazio Publikoan sartzeko probak gainditu dituzten funtzionarioek egin behar duten praktikaldian egindakoak ere.

Bi. Aurreko apartatuan aipatzen diren Administrazio Publikoaren mailatan egindako zerbitzu guztiak dira benetako zerbitzuak, bai enpleguko funtzionario gisa (behin-behinekoa edo bitartekoa), bai administrazio- edo lan-kontratuaren arabera egindako zerbitzuak izan, kontratu horiek dokumentu bidez formalizatu diren edo ez kontuan hartu gabe.

Bestalde, Administrazio Elektronikoa buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren 2015eko maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuaren 15. artikulua ezartzen du, modu automatizatuan sortutako administrazio-jardueren sinadura elektronikorako, ziurtagiri elektronikoa aitortu batean oinarritutako zigilu elektronikoa erabili ahal izango dela.

Jarduera automatizatu sortu duen informazio-sistema baten ardura duen foru-sailaren titularraren foru-agindu bidez aplikatu eta sortuko da administrazio-jarduera automatizatu horretarako sinadura elektronikoko sistema; horretarako, administrazio elektronikoa arloko eskumena duen foru-sailak txostena eman behar du aurretik. Erakunde publikoen kasuan, berriz, ebazpen bidez aplikatu eta sortuko da. Agindu eta ebazpen horiek dagokion egoitza elektronikoa argitaratuko dira, eta alderdi hauek jasoko dituzte:

- Sinadura-sistema erabili eta aplikatzearen ardura duten organoak.
- Sistema aplikatzen zaien jarduera automatizatuak.
- Ziurtagiriak egiaztatze bidezko balidazio-zerbitzua, zigilu elektronikoa erabiltzen denean.
- Jarduera automatizatuaren edukia egiaztatze bidezko egoitza edo azpiegoitza elektronikoa eta egiaztapen-sistema erabilgarri dagoen epea, egiaztapen-kode segurua erabiltzen denean.

Egiaztapen-kode seguruak, betiere, alderdi hauek bermatu beharko ditu:

- Jarduera edo dokumentu bakoitzerako kode bakarra sortzea.
- Kodearen lotura sinatutako dokumentuarekin eta sinatzen duen organoarekin, erakundearekin eta, hala badagokio, pertsonarekin.
- Sinadura-sistema aplikatzea baimentzen duen agindu edo ebazpenean ezarritako epean egiaztatze aukera.

Gaur egun, administrazio-jarduera automatizatuaren Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen (aurrerantzean, SPAJL) 41. eta 42. artikuluetan jasota dago. SPAJLren 41. artikulua administrazio-jarduketa automatizatuari egiten dio erreferentzia, eta, laburbilduta, esan nahi du bitarteko elektronikoa era-



biliz egiten den jarduera oro, enplegatu publiko batek zuzenean esku hartzen ez badu. Honela definitzen du artikulua jarduera-mota hori:

«1. Administrazio-jarduketa automatizatutzat hartuko da edozein egintza edo jarduketa, administrazio publiko batek osorik bitarteko elektronikoz eginan administrazio-prozedura baten barruan, enplegatu publiko baten zuzeneko esku-hartzerik gabea.

2. Administrazio-jarduketa automatizatuen kasuan, aldezturik ezarri beharko da zer organo den edo diren eskudun, kasuan-kasuan, espezifikazioak, programazioa, mantentzea, gainbegiratzea eta kalitate-kontrola definitzeko, eta, hala badagokio, informazio-sistemaren eta iturburu-kodearen auditoretzarako. Era berean adieraziko da zer organo hartu behar den ardura-duntzat aurkaratzearen ondorioetarako».

Administrazio-jarduera automatizaturako sinadura-sistemei dagokienez, SPAJLren 42. artikulua ezartzen du administrazio publiko bakoitzak zehaztu dezakeela zer kasutan erabili sinadura elektronikoko sistemak:

«Administrazio publiko bakoitzak, bere eskumena baliatzean administrazio-jarduketa automatizatuan, sinadura elektronikoko sistema hauen erabilera-kasuak zehaztu ahalko ditu:

- a) Zigilu elektronikoa, administrazio publikoarena, organoarena, organismo publikoarena edo zuzenbide publikoko entitatearena, oinarri hau duena: sinadura elektronikoari buruzko legeriak eskatzen dituen betekizunak betetzen dituen ziurtagiri elektroniko onartu edo kualifikatua.
- b) Egiaztapen-kode segurua, administrazio publikoari, organoari, organismo publikoari edo zuzenbide publikoko entitateari lotua, ezarritako baldintzen arabera. Dokumentuaren osotasuna egiaztatzeko modua eskaini beharko da beti, dagokion egoitza elektronikorako irispidearen bitartez.

Hori dela eta, egokitzen jotzen da zigilu elektronikoa eta egiaztapen kode segurua (EKS) ezartzea Bizkaiko Foru Aldundian aurretiazko zerbitzuen ziurtagiria emateko administrazio-jarduera automatizaturako sinadura elektronikoko sistema gisa.

Foru-agindu hau bat dator erregulazio onaren printzipioekin, zeinak aurreikusita baitaude Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta jasota baitaude Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horrek Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura erregulatzen du). Bestalde, foru-agindu hau izapidetu denean, foru-dekretu horretan aipatutako txostenak eskuratu dira.

Azaldutakoa kontuan hartuta, otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.i, 63. eta 64. artikulua eta ezarri beharreko gainerako xedapenak ikusita eta Administrazio Elektronikoa buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren 2015eko maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuaren 15.2 artikuluan emandako eskumenak erabilia, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa. — Xedea eta aplikazio-eremua

Foru-agindu honen xedea da zigilu elektronikoa eta egiaztapen kode segurua (EKS) ezartzea Bizkaiko Foru Aldundian aurretiazko zerbitzuen ziurtagiria sinatzeko sinadura elektronikoko sistema gisa.

Bigarrena. — Organo arduraduna eta ezaugarriak

- a) Bizkaiko Foru Aldundiko Langileak Kudeatzeko Zerbitzua arduratuko da zigilu elektronikoa sinadura-sistema eta egiaztapen-kode segurua (EKS) erabiltzeaz eta aplikatzeaz.



- b) Aplikatzekoa den sinadura- eta ziurtapen-sistemaren ezaugarri tekniko orokorrak ziurtapen-zerbitzuak ematen dituen enpresak onetsitako Ziurtapen Praktiken Deklarazioan jasotakoak izango dira.
- c) Zigilu elektronikoa eta egiaztapen-kode seguruan (EKS) «Langileak Kudeatzeko Zerbitzua» adieraziko da.
- d) Zigilu elektronikoa eta egiaztapen-kode seguruaren (EKS) bidez sinatutako dokumentuen edukia Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://www.ebizkaia.eus>) argitaratutako «Dokumentuak lokalizatzailaren eta sinaduren bidez egiaztatzea» zerbitzuaren bidez egiaztatuko da, dokumentuan txertatutako lokalizatzailea (EKE) erabiliz.
Egiaztapen-kode segurua (EKS) aplikatzen zaion dokumentua indarrean dagoen bitartean egongo da eskuragarri kode hori, egiaztapenak egiteko, harik eta hari loturiko dokumentuak suntsitzea erabakitzen den arte, aplikatu beharreko araudiaren edo erabaki judizial baten arabera.
- e) Zigilu elektronikoa eta egiaztapen-kode segurua sinadura elektronikoko sistema gisa erabili ahal izango dira foru-agindu honen eranskinean zehaztutako administrazio-jarduera automatizaturako.

Hirugarrena. — Administrazio-jarduketa automatizatuekin lotutako beste zehaztapen batzuk

Ebazpen honetan aipatzen den izapidetze elektronikoa automatizatua egiteko aplikazio informatikoak eta parte har dezaketen aplikazio eta azpiegitura korporatibo guztiak Bizkaiko Foru Aldundiko Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Langileak Kudeatzeko Zerbitzuak berez dituenak dira.

AZKEN XEDAPENA

Azken Xedapen Bakarra. — Indarrean jartzea

Ebazpen hau Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa argitaratuko da, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2026ko ekainaren 16an.

Herri Administrazioarako
eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua,
AGER IZAGIRRE LOROÑO



ERANSKINA

**EGIAZTAPEN KODE SEGURUA ETA ZIGILU ELEKTRONIKOA:
«LEHENAGO EGINDAKO ZERBITZUEN ZIURTAGIRIA»**

Jarduera automatizatu hauei aplikatuko zaie:

— Bizkaiko Foru Aldundian Lehenago Egindako Zerbitzuen Ziurtagiria ematea.